

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

6476 3/2014 Lege Organikoa, ekainaren 18koa, Errege Juan Carlos I Borboikoaren abdikazioa indarrean jartzen duena.

JUAN CARLOS I

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau irakurtzen duten guztiek jakin dezaten.

Jakin ezazue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onartu dutela, eta, Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

Juan Carlos I Erregeak, abdikatzeko borondatea zuela jakinarazi zion 2014ko ekainaren 2an, Gobernuko presidenteari idazki bidez, zein haren aurrean sinatu baitzuen. Idazkiaren edukia, hitzez hitz:

«Errege proklamatu nindutenetik aurki beteko dira lau hamarkada. Neure gain hartu nuen, orduan, Espainiaren interes orokorren alde egitea, uste izanez herritarrak izango zirela euren destinoaren jabe; eta uste izanez, halaber, Europan erabat lekukotutako demokrazia moderno bat bilakatuko zela gure Nazioa.

Eginkizun nazional baten gidari bihurtu gura izan nuen, ilusioz gainezka: aukera eman herritarrei, batetik, euren ordezkari legitimoak hautatzeko; eta aukera eman, bestetik, garai hartan Espainiak hain premiazkoa zuen eraldaketa sakona eta positiboa burutzeko.

Harrotasuna eta esker ona; horixe da, iraganari errepassoa egiterakoan, Espainiako herriari agertu nahi diodana, eta ez beste.

Harro bai, asko baita –eta ona– denon artean lortu duguna urte guzti horietan.

Esker ona, espainiarrek eskaini didaten laguntzagatik; horrexek egin baitu posible nire erregetza bake-, askatasun-, egonkortasun- eta aurrerabide-giro batean igarotzea; gaztaroko une zail eta nahasietan hasitako erregetza.

Nire aita Bartzelonako kontearengandik jaso nuen Espainiako monarkiaren legatu historikoa, eta fidela izan natzaio haren desira politikoari, espainiar guztien errege izateari, hain zuzen ere. Bat egin eta konpromisoa hartu dut herritarren helburuekin. Gozatu euren arrakastekin. Sufritu ere bai, egoerak okerrera egitearekin, mina eta frustrazioa sentitu dutenean.

Bizi dugun krisialdi ekonomiko luze eta sakon honek modu latzean eragin duen arren gizartean, bada arrazoirik etorkizunari itxaropen osoz so egiteko.

Urte zail horietatik ikasi dugu gure hutsen eta gizarte-mugapenen balantze autokritikoa egiten.

Bestalde, gure trebezien —lehengoen eta oraingoen— kontzientzia harro erakusteko ere balio izan digute urteok; izan garenaren eta garenaren adierazgarri: nazio handi bat.

Horrek guzti horrek berriztatzeko, hobetzeko eta akatsak gainditzeko grina sortu du gudan; oraina baino hobea izango den etorkizunari ateak irekitzeko grina.

Etorkizun horren eraikitzea ate joka ari den belaunaldi berri bati dagokio, nire belaunaldiari egokitu zitzaion moduan gure historiaren une erabakigarrian protagonista izatea.

Belaunaldi berri eta gazteago batek hartu beharko luke lehenengo lerroa, indartsu datorren belaunaldiak, zeinek asmo osoa baitu, batetik, egungo koiunturak eskatzen dituen eraldaketa eta erreformei ekiteko, eta, bestetik, gogotsu eta irmoki heltzeko etorkizuneko erronkei.

Nire anbizio bakarra izan da —eta da— laguntza ematea espainiar guztien ongizatea eta aurrerabidea askatasun giroan lortzeko.

Espainiarentzat hoberena gura dut; haren alde eman dut nire bizia, eta haren zerbitzura jarri ditut nire lana, ilusioa eta ahalmen guztiak.

Seme Felipe da Koroaren oinordekoa. Egonkortasuna du ezaugarri, zein monarkiaren nortasun-ikurra baita.

Hirurogeita hamasei urte bete nituen urtarrilean. Iritzi nion orduan bazela garaia hil batzuen barruan ordezkoa prestatzeko; lekua uzteko, hain zuzen ere, egonkortasuna bermatzeko baldintza ezin hobekak dituenari.

Estatu-buru berme osoekin izateko baldintzak betetzen ditu Asturiasko Printzeak: heldutasuna, prestakuntza eta erantzukizuna. Itxaropen-aldi berri bati ekitea dagokio berari, baita ere uztartzea jasotako eskarmentua eta belaunaldi berriaren bultzada. Eginkizun horretan bere ondoan izango du beti, ez dut dudarik egiten, Letizia printzesa.

Horregatik guztiagatik, abiaburu izanik espainiar guztiei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea, sasoi onean egonik eta bete-betean nire zeregin instituzionaletan, hemen amaitu gura dut nire erregetza. Abdikatu egiten dut Espainiako Koroa. Gobernuaren eta Gorte Nagusien esku uzten ditut nire magistratura eta agintaritzak, Koroaren oinordetzaz arduratu daitezten Konstituzioak agindutako eran.

Eskerrak eman nahi dizkiet Espainiako herriari, nire erregetzan Estatu-botereen eta -instituzioen ardura izan dutenei eta nire eginkizunak betetzen eskuzabaltasunez eta leialtasunez lagundu nauten guztiei.

Nire eskerrona, azkenik, Erreginari, beti izan baititut haren lankidetzak eta laguntza zintzoa.

Espainiak du —eta beti izango du— leku apartekoa nire bihotzean.»

Erregeak jakinaren gainean jarri zituen diputatuen Kongresuko eta Senatuko presidentek, eta Gobernuako presidentek eman zion horren berri, idazki bidez, ministroen Kontseiluari.

Espainiako Konstituzioaren 57.5 artikulua honakoa xedatzen du: «Koroa-uzteak, Koroari uko egiteak, edota Koroaren ondorengoaren ordenan egiteko zein zuzenbidezko zalantzak gertatuz gero, lege organikoaren bidez ebatziko dira». Xedapen honek Espainiako konstituzionalismoaren aurrekari historikoei jarraitzen die, izan ere, 1845., 1869. eta 1876. urteetako oinarrizko testuetan eta —aldaketak barne— beste aurrekari batzuetan, botere legegilearen esku utzi zen erregetzaren oinordetzak ekar zitzakeen auzien irtenbidea, baita abdikaziorako baimena ematekoa ere; kasu bakoitzerako lege berezi bat emanez, behar izanez gero. Indarreko Konstituzioak termino hori erabiltzen ez duen arren, aipatutako aurrekariok eta 57. artikulua xedatutakoak «... lege organikoaren

bidez ebatziko dira», lege-baliabide horixe erabiltzera behartzen dute, bera baita egokiena ebazpenaren eraginkortasuna arautzeko.

Lege organiko honek indarra hartzeak erabakiko du, hortaz, abdikazioak ondorioak izatea eta Espainiako Koroaren oinordetza automatikoki gertatzea, Konstituzioan jasotako hurrenkeran.

Artikulu bakarra. Errege Juan Carlos I Borboikoaren abdikazioa.

1. Errege Juan Carlos I Borboikoak abdikatu egiten du Espainiako Koroa.
2. Lege organiko hau indarrean jartzen denean izango da eraginkorra abdikazioa.


Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Lege organiko hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean sartuko da indarrean.

Horrenbestez,
Espainiar guztiei, norbanako zein agintariei, agintzen diet Lege Organiko hau bete eta betearaz dezaten.

Madriren, 2014ko ekainaren 18an.

JUAN CARLOS E.



Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

